



StartUps Euskaltel programan parte hartzeko oinarriak

1.- Sarrera

Euskaltelek egiten dituen jarduera instituzionalen helburua da arduraz eta gertutik jardutea interes-taldeekin, bezeroekin, gizartearekin, hornitzaileekin eta bere pertsonekin.

Euskaltelen misiotik sortu den jardute-filosofia horrek, era berean, helburu du konpainia elementu traktore gisa kokatzea EAEko ekonomian, toki-negozorako aukerak sortzea, enpleguan eragitea, Euskadiko asoziazio-ehuneko aitzindari izatea, konfiantza eta konpainiako kide izatearen harrotasuna sortzea eta euskal gizartearen konpromiso sozialaren eta posizionamendu digitalaren alde egitea, lehiakortasuna eta eremu publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatuz.

Balioa sortzera bideratzen da gure Misioa: "Pertsonen komunikazio-beharrei erantzutea modu integralean eta enpresei produktibitate handiagoa izaten laguntzea, komunikaziorako eta informazioa kudeatzeko tresnak eskainiz; hala, gure erkidegoaren garapen ekonomikoari eta sozialari laguntzen diogu".

Testuinguru horretan sortu da StartUps Euskaltel, ekintzaitzari laguntzeko Euskaltelen programa. Jarraian azaltzen diren oinarri hauen bitartez aurkezten da StartUps Euskaltel programa, zeinaren bidez programan parte hartu nahi duten *StartUp*ak bilatzen baititu Euskaltelek.

2.- Programan parte hartzeko baldintzak

*StartUp*ak sozietate gisa eratuta egon behar du gutxienez 3 urte lehenagotik, eta Euskadin izan behar du egoitza; programarekin lankidetzan diharduten erakundeen inkubazio- edo azelerazio-programetako bat pasatuta eduki beharko du, edo haietako batean hautatuta egon beharko du, 1. eranskinaren arabera.

Parte hartzeko formularioan jasotako informazioa aztertuta, Euskaltelek askatasunez eta aldebakarrez ebaluatu eta hautatuko ditu interes handiena sorrarazten dioten proiektuak, ebaluazio-irizpide hauek oinarri hartuta:

- Proiektuak zenbateraino egiten duen bat Euskaltelen ildo estrategikoekin
- Proiektuaren heldutasun-maila
- Potentziala

Gauzen Internet, adimen artifiziala, WiFia eta 5G, Zibersegurtasuna eta eduki-mota berriak dira Euskaltelen ildo estrategikoak. Atal horien barruan, pertsoneri eta enpresei zuzendutako Berrikuntza hartzen dugu kontuan: IoT, etxe digitala, gailu adimendunak, auto konektatua, Industria 4.0, *smart city*ak, *eHealth*, eraldatze digitala, bizi-estilo digitala, *big data*, datuen analisi aurreratua eta *machine learning*, sareko eta komunikazioetako teknologia berriak, 5G, WiFia eta mugikortasuna, zibersegurtasuna, eduki berriak, Deco 4K-ri buruzko app-ak eta jolasak.



Programan parte hartu ahal izango dute, halaber, *StartUp* teknologikoek oro har eta irismen globaleko proiektu bat duten *StartUp* berritzaileek.

Programa honetan ezingo dute parte hartu alde zuzenik beste telekomunikazio-operadore batek (erabat edo partzialki) sustatutako halako programa batean parte hartu duten *StartUpek*.

3.- Programan parte hartzearen onurak

Euskaltelek bere zerbitzuak eta jakintza eskaintzen ditu, eta *networkinga* eta talderako sarbidea ere bai. Euskaltelen ekarpena pertsonalizatu egingo da proiektuaren arabera, *StartUp* bakoitzaren egoera eta beharrak aztertuko baitira. Hona zein izan daitezkeen programan parte hartzearen onurak:

A. HURRENGO TELEKOMUNIKAZIO-ZERBITZU HAUEN HORNIDURA

Zerbitzu hauen hornidura, doan, urtebetez (beste urtebetez luzatu daiteke, Euskaltelek hala erabakiz gero):

- Internet 350 M
- 3 linea dei mugagabeak egiteko telefono finkoetara eta mugikorretara
- 3 GB-eko 3 linea mugikor
- Web-ostatatzea, domeinua eta postontziak

Programan sartzeko hautatutako *StartUpek* komunikazio-pakete definitua erabili ahal izango dute, baldin eta *StartUp*aren egoitza Euskaltel Sarea dagoen eremu batean badago.

Edonola ere, eskaintzen diren onurek Euskaltelen merkataritza-produktuen muga berdinak izango dituzte. Muga horiei buruzko informaziora jotzeko: www.euskaltel.com

B. DATACENTER-ZERBITZU AURRERATUAK DOAN

Ebaluazio-irizpideen arabera puntuazio altuena duten *StartUpek*, eta beren beharren arabera, datacenter-zerbitzu aurreratuko zerbitzuen pakete definitua erabili ahal izango dute doan urtebetez (beste urtebetez luzatu daiteke, Euskaltelek hala erabakiz gero); hots:

- Konexio simetrikoa eta 200 GB-eko SAM biltegiatze malgua duten 3 zerbitzari birtual (2 Ghz vCpu, 4 GB RAM)

C. PROBA ETA GARAPENETARAKO ESKURAGARRI DAGOEN EKIPAMENDUA

D. PRESTAKUNTZA ETA WORKSHOPAK EUSKALTELEKO ADITU ONENEKIN

Euskaltelek ekitaldiak eta trebakuntzak emango dizkie definitutako gaiekin bat datozen *StartUpei*.

E. NETWORKINGA ETA WEB-IKUSGAITASUNA, SARE SOZIALAK ETA EUSKALTELEN JARDUERAK

F. BATERAKO PUBLIZITATEA ETA PUBLIZITATE BABESTUA

G. EUSKALTELEK PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK EROSTEAREN AZTERKETA

Eta Euskaltelen estrategiarekin bat egin dezaketen produktu edo zerbitzuak dituzten *StartUpei* buruzko azterketa bat egin ahal izango da, Euskalteleko produktu edo zerbitzuen zati izateko balio ote duten jakiteko.



Zerbitzuak eman ahal izateko, beharrezkoa izango da *StartUp*aren eta Euskaltelen artean zerbitzua emateko kontratu bat sinatzea. Oinarri hauetan jasotzen diren onuren ondorio gisa, % 100eko deskontua izango da zerbitzu fakturatuetan.

Baldin eta *StartUp*ak zerbitzu osagarriak beharko balitu, zerbitzu horiek, eta zerbitzu bakoitzaren mugetan barne hartzen ez diren kontsumoak, indarrean diren tarifen arabera fakturatu dira.

4.- *StartUp*en betebeharrak

Emaguzu zure proiektuaren berri, erakutsiezaguzu zure produktu, zerbitzu edo prototipoa, eta parte hartu antolatzen ditugun ekitaldietan eta *demo day*etan. StartUps Euskaltel taldearekin bilerak (urrunetikoak nahiz presentzialak) egiteko eskatu ahal izango da.

Programa sustatzeko, irudiak eta bideoak grabatu ahal izango ditugu ekitaldietan, eta haiek erabili ahal izango ditugu, eta, halaber, zure proiektuaren izena, logotipoa eta laburpena ere bai.

Programan parte hartzen dutenek programan parte hartzeagatik egin behar dituzten joan-etorrien gastuak ordaindu beharko dituzte.

5.- Parte hartzeko eskaerak

StartUps Euskaltelen parte hartu nahi duten *StartUp*ek eskaera aurkeztu beharko dute; horretarako, formulario bat bete eta bidali beharko dute, zeina www.StartUpseuskaltel.eus eta www.StartUpseuskaltel.com helbideetan eskura baitaiteke.

Proiektuaren eta hura osatzen duten pertsonen datu garrantzitsuenak eskatzen dira formularioan. Bestalde, ideiarenekin, produktuaren edo zerbitzuaren, irtenbidea ematen zaion arazoaren, merkatuaren, datu finantzarioen, negozio-ereduaren eta ekipoaren berri ematen duen aurkezpen labur bat eransteko eskatzen da. Gomendatzen da proiektuaren berri azkar ulertzeko behar den informazio guztia azaltzeko, eta, era berean, erakusteko produkturik edo betarik dagoen adierazteko.

Zalantzak argitzeko: StartUps@euskaltel.com.

Startup batek programan parte hartzeko eskaera aurkezten badu, joko da oinarri hauek onartzen dituela berariaz.

6.- Prozesua



Formularioa jasotzen dugunean, aztertu eta berrikusi egingo dugu, iristen diren ordenan.

Baliteke informazio gehiago emateko edo elkarrizketa bat egiteko eskatzea, zure proiektuaren berri eman diezaguzun, edota zure produktuak, zerbitzuak, prototipoak edo beta bertsioak erakuts diezazkiguzun.

Eskatutako baldintzak betetzen diren eta zure beharrak aztertuko ditugu, eta, StartUps Euskaltelen ebaluazio-irizpideei jarraituz, gehienez ere beharrezko informazioa jaso eta hurrengo hileko azken egunean, adieraziko dizugu hautatua izan zeren, Ebaluazio Batzordearen bileraren ostean. Baldin eta hautatzen bazaitugu, adieraziko dizugu gure ustez Euskaltelek nola lagundu diezazukeen eta StartUps Euskaltel programak zer onura ekar diezazkizukeen.

7.- Informazioaren erabilera eta irudi- eta audio-eskubideak

Parte-hartzaileek baimena ematen diete EUSKALTELI eta programaren antolatzaileei hautatutako proiektuen laburpen bat, programan parte hartzen dutenen izena eta proiektu horien arduradunen irudiak eta izenak zabaltzeko eta argitaratzeko Interneten eta prentsa espezializatuan eta/edo orokorrean, jendeari proiektuaren berri emateko. Ez dute ordainik jasoko horren truke.

Hautatzen diren eta Programan parte hartzen duten guztiek baimena ematen diete Euskalteli eta antolatzaileei irudiak hartzeko eta audioak nahiz bideoak grabatzeko hautatze-prozesuko faseetan eta Programaren faseetan, eta, halaber, Programako parte-hartzea kudeatzeko; eta Euskalteli eta antolatzaileei lagatzen dizkie irudi, ahots, audio eta bideo horiek eta bere proiektuaren izena, izenburua eta laburpena edozein bitartekotan (fisikoa nahiz digitala —sare sozialak, kanpoko/barruko hedabideak, webguneak, etab.—) eta edozein euskarri eta formatutan erabiltzeko eskubidea, betiere Programa sustatzeko, hedatzeko eta garatzeko helburuarekin. Hirugarrenei lagatzeko ahalmena ematen du lagatze horrek, geografia- eta denboramugarik gabe, eta doan. Era berean, beharrezkoa da parte-hartzaileak Programan laguntzeko aukeratzen dituen pertsonen baimena ere jasotzea, lehenago adierazitako kondizioetan.

8.- Erreserbak eta mugak

Oinarri hauen helburua da Euskaltelen Programan parte hartuko duten proiektuak hautatzeko kondizioak eta prozedura zehaztea. Oinarri hauetako kondizioek ez dakarte inolako betebehar- edo kontratu-loturarik ez Euskaltelentzat ez parte-hartzaileentzat, oinarrietan berariaz jasotzen denetik harago.

Euskaltelek eskubidea du Programaren oinarri hauek indargabetzeko, bertan behera uzteko eta/edo aldatzeko dena delako arrazoiengatik; hala gertatuz gero, parte-hartzaileei jakinarazi beharko die, eta horrek parte-hartzaileei ez die inolako eskubiderik emango erreklamatzeko/kalte-ordainak jasotzeko.

Era berean, Euskaltelek eskubidea du bere iritziz Deialdian eta/edo Programan parte hartzeko kondizioak betetzen ez dituzten proiektuak kanpo uzteko.



Programan parte hartzen dutenek ordaindu beharko dituzte programan parte hartzeagatik dituzten gastu administratiboak. Era berean, parte hartzen duten proiektuek beren gain hartu beharko dituzte egin beharreko joan-etorrien gastuak eta ostatu hartzearen gastuak.

9.- Alderdi legalak

9.1 OINARRIAK ONARTZEA

Parte-hartzaileek Programan parte hartzeko eskaera egiten badute (formularioa bidalita), joko da oinarri hauetan jasotzen diren konpromisoak onartzen dituztela eta beteko dituztela, eta, beraz, oinarrietan azaltzen denarekin bat datozela eta onartzen dutela. EUSKALTELek eskubidea du deialdi hau eta hautaketa-prozesua ezeztatzeko, aldatzeko edo bertan behera uzteko eta/edo plazak hutsik lagatzeko, hala baderitzo.

Parte-hartzaileak badaki eta onartzen du bere proiektuaren berri ematearen erantzukizuna berea bakarrik dela eta horren arrisku guztiak onartzen dituela. Era berean, onartzen du bere ideiak edo berrikuntzak besteren erreklamazioak eragiten baditu EUSKALTELi kalterik ez diola eragingo.

9.2 JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

Parte-hartzaileak erabat bere erantzukizunarekin bermatzen du bidaltzen eta aurkezten duen edukia berak sortua dela, eta ez duela hausten hirugarrenen eskubiderik, barne harturik, mugarik gabe, jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideak, egile-eskubideak, merkataritza-marken eskubideak, patenteenak, sekretu komertzialak eta pribatutasunari eta publizitateari buruzko eskubideak; halaber, bermatzen du edukia sortu eta/edo bidali den moduak ez duela hausten hirugarren batekin izan dezakeen kontratuzko betebeharririk.

EUSKALTELek eskubidea du automatikoki kanpo uzteko hautatze-prozesuaren funtzionamendua eta haren bilakaera normala eta arauzkoa eragozten edo erabilezin bihurtzen duen edozein parte-hartzaile, iruzurrezko bitartekoak erabiliz jarduera ezegokiak (adibidez, informazio pribilegiatua erabiltzea, manipulazio desegokiak egitea...) egiten dituen edozein parte-hartzaile eta/edo EUSKALTELen espirituaren aurkakotzat jo daitekeen edozer egiten duen edozein parte-hartzaile.

Parte-hartzaileak baimena ematen dio EUSKALTELi, prozesu honetan parte hartze hutsagatik eta inolako eskubide gehigarririk gabe, deialdi honekin edo EUSKALTELen jarduerarekin lotutako material publizitarioan helburu horietarako berariaz eskatzen zaion proiektuari buruzko informazioa erabiltzeko mugarik gabe, zuzenbidean onartutako edozein bitartekoz. Edonola ere, joko da parte-hartzaileak eskaera borondatez bidaltzen duela, eta, hala ez balitz, EUSKALTELek ez du inolako erantzukizunik izango.

Parte-hartzaileak datu zuzenak, benetakoak eta osatuak eman beharko ditu, eta datuak faltsuak edo zehaztasunik gabeak izatearen erantzukizun guztia bere gain hartuko du. Parte-hartzaileak ez badu baldintza hori betetzen, EUSKALTELek eskubidea izango du, beste edozein lege-baliabide gorabehera, parte-hartzaileari kondizio hauen bidez onartutako eskubideak kentzeko, ezeztatzeko edo baliogabetzeko.



Parte-hartzaileak onartzen du EUSKALTELek hartuko dituela deialdiari eta proiektuak hautatzeari buruzko azken erabakiak.

9.3 ESKAERAREN INGURUKO ESKUBIDEAK

Gero egin daitezkeen akordioak gorabehera, parte-hartzaileek, deialdian parte hartze hutsagatik, ez dute galduko edo berrizendatuko beren proiektutik erator daitezkeen eskubideen jabetzarik. EUSKALTELek kondizio hauen arabera dituen eskubide eta betebeharretak edozein laga eta besterendu ahal izango die bere enpresa bazkideei.

Proiektua bidali eta 90 egunera parte-hartzaileek ez badute jasotzen EUSKALTELen jakinarazpenik, aurretiko hautaketa ez dutela gainditu joko da.

9.4 ERANTZUKIZUNA

Kondizio hauek ez betetzeagatik sor daitezkeen berehalako edo bitarteko kalte guztien, zuzeneko nahiz zeharkako, erantzukizuna izango dute parte-hartzaileek EUSKALTELen aurrean.

Era berean, parte-hartzaileak erantzule izango dira EUSKALTELen aurrean baldin eta eskaeran hirugarrenen eskubideak urratzen badituzte, eta EUSKALTEL kalterik gabe mantendu eta indemnizatu egingo dizkiote eragindako kalte guztiak, mota guztietako erreklamazioak, prozedura judizialak edo judizioz kanpokoak barne; kasu guztietan ordaindu beharko dituzte abokatuen, defentsa-taldeen eta beste profesional batzuen ordainsariak, betiere lehen azaldutako betebeharrak ez betetzeagatik egin badira.

Baldin eta eskatzaileek ez badute betetzen kondizio hauek onartzeagatik hartzen duten konpromisoa, EUSKALTELi edo haren atalei eragindako kalteen erantzule izango dira. Erantzukizun horren barnean sartzen da edozein ondorio berehalako, kontingente eta etorkizuneko. Dokumentu honekin hartzen den konpromisoa indarrean sartuko da kondizio hauek onartzen diren unean, eta indarrean jarraituko du harik eta formularioa bidaltzen denetik bost urte igaro arte.

Eskaera bidaltzea, EUSKALTELek hura erabiltzea edo oinarri hauetako edozein aipamen ez da interpretatuko EUSKALTELek egindako eskaintza edo lan-kontratu gisa.

9.5 KONFIDENTZIALTASUNA

Deialdian aurkeztutako ideia eta proiektuen edukia, dokumentazio guztia eta parte-hartzaileak emandako edozein informazio konfidentzialtasunez tratatuko ditu EUSKALTELek.

EUSKALTELek konpromisoa hartzen du horiek guztiak ez erabiltzeko dokumentu honetan jasotzen diren helburuez bestelakoetarako.

Parte-hartzaileak baimena ematen du EUSKALTELi deialdirako eskaeran jakinarazi edo bidali dion informazio guztia (datu pertsonalak barne) EUSKALTELek prozesa eta erabil dezan modu orokorrean deialdiko erregistrarako, parte-hartzailearen parte-hartzerako, proiektuaren analisirako eta haren ebaluaziorako; horretarako, segurtasun informatikoko eta konfidentzialtasuneko arazoizko neurri guztiak aplikatuko ditu, datuak ez aldatzeko edo galtzeko eta baimenik gabe tratatu edo erabil ez ditzaten.



Era berean, parte-hartzaileak baimena ematen dio EUSKALTELi, proiektua aztertzeko eta ebaluatzeko helburuarekin, proiektuak Ebaluatzeko Batzordeari parte-hartzaileak deialdian aurkeztutako ideien, dokumentazioaren eta informazioaren berri emateko.

Aurkezten diren proiektuak jaso eta behar bezala ebaluatzeko, proiektuak Ebaluatzeko Batzordeko kide guztiek parte hartzeko kondizioak onartzen dituzte alde aurretik; kondizio horietan jasotzen dira, besteak beste, parte-hartzaileak bere proiektuaren gain dituen jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak babesteari eta konfidentzialtasun-betebeharrei buruzko klausulak. Aurrekoa gorabehera, EUSKALTEL ez da izango ebaluatzaile sareko kideen ekintzen edo ez-egiteen erantzule.

Informazio hauek ez dira INFORMAZIO KONFIDENTZIALtzat joko:

- a) gaur egun publikoa dena edo geroago izango dena.
- b) konfidentzialtasun-betebeharrik ez duen hirugarren batengandik lege jasotzen dena
- c) ezaguna dena edo alderdi batek lege ezagutzen duena beste alderdiak jakinarazi baino lehen
- d) edozein hirugarreni eman behar zaiona, betiere informazio hori emateko betebeharra hauetakoren batek ezartzen badu: (i) indarrean den legediak, (ii) jurisdikzio-eskumen nahikoa duen edozein epaitegik edo (iii) erregelamendu-ahala duen edozein gobernu-autoritatek edo erakundek.

Iraupena.- Informazio konfidentziala ez ezagutarazteko konpromiso honek iraungo du proiektuak dirauen artean eta hura bukatzen denetik beste bi urtean.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute proiektuan zehar jaso duten INFORMAZIO KONFIDENTZIALari buruzko dokumentu eta dokumentuen kopia guztiak itzultzeko edo suntsitzeko beste alderdiek aurretiaz hala eskatuz gero. Alderdietako edozeinek eskatuz gero, beste alderdiek idatziz berretsi beharko dute INFORMAZIO KONFIDENTZIALA suntsitzeko betebeharra gauzatu dutela; horrek ez du esan nahi akordio honetan onartzen diren betebeharrak bete beharko ez direnik.

Alderdietako bat behartua badago lege dokumentu batzuk gordetzera, indarrean jarraituko dute klausula honetan aurreikusten diren konfidentzialtasun-betebeharrek.

9.6 PRIBATUTASUNA

Euskaltelen StartUps programan parte hartzen dutenen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Euskaltel da. Euskaltelen StartUps programan parte hartzen duen pertsona juridiko baten ordezkari bazara, gure interes legitimoaren arabera tratatuko ditugu zure datu pertsonalak, zuk ordezkatzeko programan parte hartzea bermatzeko xede hutsarekin. Zeure izenean ari bazara parte hartzen Euskaltelen StartUps programan, zurekin lotzen gaituen kontratu-harremana oinarri hartuta tratatuko ditugu zure datu pertsonalak, programan parte har dezazun bermatzeko xede hutsarekin.



Betiere, parte-hartze horrek irauten duen denboran tratatuko ditugu zure datuak, eta geroago gorde ahal izango ditugu, blokeaturik, tratamendu horrekin lotutako legezko akzioen preskripzioetik eratorzen diren epeetan.

Sozietateak zure datu pertsonalak lagako dizkie bere Taldeko entitateei (Euskaltel SA, Telecable SAU eta R Cable y Telecomunicaciones Galicia SAU) sozietateak lagapen horretarako administrazio-xedeeekin duen interes legitimoaren arabera. Datuak jasotzen dituzten Taldeko sozietate sinatzaileek informazio hori tratatzeko duten administrazio-xedea *start-up*ak laguntzeko programen kudeaketa zentralizatua da.

Era berean, sistemen eta teknologiaren eta administrazio-kudeaketaren sektoreetan Sozietatearen zerbitzuak ematen dituztenek aukera izango dute zure datuetara sartzeko, hirugarren horiek Sozietateari egiten dioten zerbitzu-prestazioaren esparruan.

Datuetara sartzeko, haiek zuzentzeko, haiek ezeztatzeko, haien tratamendua mugatzeko, haien eramangarritasunerako eta haien aurka egiteko eskubideak balia ditzakezu sozietatearen helbide honetara idatziz, StartUps@euskaltel.com, edo idatzizko eskaera bat bidaliz hona: Euskaltel SA, Berrikuntza Saila, Parke Teknologikoa, 809 eraikina, 48.160 Derio (Bizkaia).

Datuak Babesteko Espainiako Agentziara ere jo ahal izango duzu, uste baduzu zure datu pertsonalen tratamenduan legeria urratu dela datuen babesari dagokionez, edo harremanetan jarri Sozietatearen Datuak Babesteko ordezkariarekin, helbide honetan: dpd@euskaltel.com

Azkenik, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 14. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, jakinarazten dizugu ezen, klausula honetan jasotako informazioa, Sozietatea parte den Taldea osatzen duten hiru erakundeei emandakotzat jo behar dela.

Enpresen ordezkariari soilik aplikatzekoa den informazioa: parte hartzen duen sozietate baten ordezkari gisa, konpromisoa hartzen duzu eta zeure burua behartzen duzu aurreko ataletako informazioa ematera zure erakundeko langile edo harremanetarako pertsona guztiei zeinen datu pertsonalak Euskalteli emango baitzaizkio programa honetan partze hartzeari dagokion esparruan.

9.7 MISZELANEA

StartUpsEUSKALTEL Programan sartzeko hautatze-prozesuan parte hartzeko, eta erabiltzaile gisa erregistratu ondoren, parte-hartzaileak eskatzen den informazioa eta/edo dokumentazioa aurkeztu beharko du, helbide hauetan jasotzen diren eskaera-formularioen bidez soilik: www.StartUpseuskaltel.eus edo www.StartUpseuskaltel.com; horren helburua bakarrik izango da EUSKALTELe proiektua ebaluatzea (horrek ez dio proiektuaren gaineko eskubiderik ematen EUSKALTELi, ez eta parte-hartzailearekiko nahiz hirugarrenekiko erantzukizunik, eta ez du kalterik izango edozein erreklamazioaren aurrean) eta proiektu hori EUSKALTELen sartuko den erabakitzea.

Prozedurari buruzko jakinarazpen guztiak posta elektronikoz bidaliko zaizkio eskaeran adierazten den harremanetarako pertsonari.



EUSKALTELeK ez du bermatzen www.Startupseuskaltel.eus eta www.Startupseuskaltel.com helbideetako parte-hartze web-orria eta www.euskaltel.com azpidomeinuko zerbitzuetako edozein etengabe egongo direnik eskuragarri eta funtzionamenduan, etengabe eguneratzen ari diren zerbitzuak baitira; beraz, Euskaltelek ez du bermatzen modu jarraituan eta akatsik gabe funtzionatuko dutenik, eta ez du hartuko adierazitako azpidomeinu horietan jasotako informazioa nahiz zerbitzuak ez ez erabiltzeagatik edo ezin erabili izateagatik parte-hartzaileak izan ditzakeen kalteen erantzukizunik.

Baldin eta, edozein arrazoi medio (EUSKALTELez bestelako arrazoiak barne), interferentzien, omisioen, etenen, birus informatikoen edo atariaren edo zerbitzuen deskonexioen ondorioz kalteak eragiten badira, EUSKALTEL ez da haien erantzule izango. Parte-hartzailerena izango da web-orriko edo lehen adierazitako azpidomeinuetako edozeinetan jasotako zerbitzuetako informazioaren interpretazioaren eta erabileraren ardura guztia. EUSKALTEL ez da adierazitako azpidomeinuen bidez hirugarrenek emandako zerbitzuen fidagarritasunaren edo erabilgarritasunaren erantzule.

9.8 Marka erregistratuek

EUSKALTEL marka erregistratuek eta parte-hartzaileek dituzte bakoitzak bere marka erregistratuen eskubideak, jabetza eta interesak. Sarbide-eskaera adierazitako estekaren bidez bidaltzeak, berariazko aurkako baimenik izan ezean, ez dio inolako eskubiderik ematen parte-hartzaileari EUSKALTELen jabetza intelektualeko eskubideetako edozein erabiltzeko, proiektua edozein forotan EUSKALTELen izenean sustatzeko eskubidea barne.

Ez EUSKALTELeK ez parte-hartzaileak ez dituzte erabiliko beste alderdiaren marka erregistratuak nahiz izen komertzialak, ez eta haien antzeko hitzik, sinbolorik eta diseinurik ere, ez izen korporatiboan, ez beste alderdiaren edozein produkturen izenean. Izena emateko webgunean, EUSKALTELen web-atarian edo Euskaltelen azpidomeinuetan dauden zerbitzuetako edozeinetan azaltzen diren markak, oharrak, izen komertzialak, propaganda komertziala, marrazkiak, diseinuak, logotipoak, testuak, etab. EUSKALTELen jabetzakoak dira eskusiboki, edota alde aurretik eta berariaz Euskalteli haiek erabiltzeko baimena eman dieten hirugarrenenak.

Parte-hartzailearentzat debekatuta dago, baldin eta EUSKALTELeK ez badio aurretiaz eta idatziz baimenik ematen, EUSKALTELen web-atariko, www.startupseuskaltel.com eta www.startupseuskaltel.eus helbideetako edo haietan eta/edo adierazitako azpidomeinuetan jasotako zerbitzuetako edozeinetako edukiak erabili eta ustiatzea.

Aurrekoa gorabehera, programan sartzeko hautatzen den parte-hartzaileak berariaz baimena ematen dio EUSKALTELi, deialdi honetan parte harteagatik, bere irudia eta izan-abizenak edozein hedabidetan (Internet barne) eta EUSKALTELen sare sozialetan erreproduzitzeko, erabiltzeko, argitaratzeko eta zabaltzeko, geografia- eta denbora-mugarik gabe, publizitatea egiteko eta sustatzeko bakarrik, betiere EUSKALTEL programako startup berri gisa soilik; gainera, jarduera horiek ez diote irabazirik edo mozkinik ekarriko, oinarri hauetako kondizioetan jasotakoez gainera.

9.9 ERABILERA-MUGAK

Parte-hartzaileak badaki eta onartzen du izena emateko formularioa ezin duela erabili helburu hauetarako:



- Legea hauts dezakeen, moral publikoaren aurkakoa den edota kaltegarria, iraingarria, gehiegizkoa, errespetugabea, difamaziozkoa, zakarra, lizuna, inbaditzailea, arrazista, xenofoboa edo objektatu daitekeena den edozein eduki kargatzeko edo bidaltzeko.
- Pertsonen nahiz taldeen kalte eragiteko, edozein modutan dela ere.
- Edozein ekintza ilegal edo iruzurrezko egiteko.
- Edozein eduki kargatzeko edo bidaltzeko horretarako baimenik izan gabe. Eduki komertzialik edo publizitariorik ere ezingo da bidali edo kargatu beste moduren batean ere.
- Jabetza intelektualeko edozein eskubide urratzen duen edozein eduki kargatzeko edo bidaltzeko, nola egiten den edo nora kargatu edo bidaltzen den gorabehera.
- Softwarea, hardwarea edo telekomunikazio-ekipoak eten, suntsitu edo haien funtzionamendua mugatzeko diseinatutako fitxategiak edo birusak dituen edozein material kargatzeko edo bidaltzeko.
- Webgunearen, konektatutako edozein sareren edo zerbitzuak hornitzen dituen edozein hirugarrenen politiketan eragiteko edo haiek urratzeko.
- Nahita edo nahi gabe indarrean diren tokiko, estatuko edo nazioarteko legeak urratzeko.
- Beste parte-hartzaile batzuei buruzko informazio pertsonala jasotzeko edo gordetzeko.

EUSKALTELEk eskubidea izango du kondizio hauek urratzen dituen edozein eduki ezabatzeko. Parte-hartzaileak izango du hirugarren batzuen edukia partez edo osorik erabiltzearen erantzukizun guztia. Aurrekoa gorabehera, EUSKALTELEk eskubidea izango du (baina ez betebeharra) bere prozesuetako eta plataformetako edozeinetan jasotako edozein eduki ezeztatzeko eta ezabatzeko. Jurisdikzioa eta lege aplikagarria

Oinarri hauek interpretatzeko eta betetzeko, EUSKALTELEk eta proposamena erregistratu duten parte-hartzaileek Espainiako legeak beteko dituzte. Dokumentu honen interpretaziotik edo egikarizetik eratorritako eztabaidak zuzenean konpondu beharko dituzte alderdiek; horretarako, konpromisoa hartzen dute fede onez ahalik eta ahalegin handienak egiteko eztabaidak harmoniaz konpontzeko, dokumentuan adierazitako asmoaren arabera, gehienez ere 15 (hamabost) egun balioduneko epean, alderdietako batek besteari idatziz edozein erreklamazio egiten dionetik hasita; beste alderdiak erantzunik eman ez arren, adierazitako epe hori bete beharko da. Oinarri hauetatik edo hauen interpretaziotik eratortzen diren eta aurreko atalean ezarritakoaren arabera konpondu ezin izan den edozein auzi, eztabaida edo erreklamazio, eta ez betetzeari, ebazteari edo indargabetzeari dagozkion oro, Bilboko (Bizkaia) epaitegien jurisdikziopean izango da.



1. eranskina. Erakunde laguntzaileak

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiararen Garapen eta Azpiegitura Saila

SPRI

BEAZ

BIC Araba

BIC Bizkaia

BIC Bizkaia Ezkerraldea

BIC Gipuzkoa

Bind 4.0

Orkestra

Innolab Bilbao

Metxa